

txintxarri

Itsaspeko altxorren bila

Nazioarteko Itsaspeko zinema zikloa hasiko da astelehenean, Manuel Lekuonan / 3

FRANCISCO JAVIER FERRER

Irisgarritasuna ardatz

Basaundi bailararen berrurbanizazioaren aurreproiektua prest dauka udalak / 2

Ametsa egi bihurtuta,
Goya saria irabazi du
David Heras
herritarrak, 'Handia'-ko
efektu bereziengatik / 4

Inauterietako
gehigarria



Ges
ASEGURUAK



Kalitatezko zerbitzua da gure lanaren arrazoia

- ✓ Etxeko aseguruak
- ✓ Komunitateak
- ✓ Kotxeak
- ✓ Dendak
- ✓ Aurrezkiak
- ✓ Istripuak
- ✓ Enpresak
- ✓ Bizitza aseguruak
- ✓ Eta gehiago!



Basaundi irisgarriago izateko berrurbanizazioa

Basaundi Bailarari erabateko itxuraldaketa egingo dio Sestra enpresak. Auzotarrek parte hartze prozesu baten bidez egindako eskaera guztiak kontuan hartuta, auzoaren berrurbanizazioa martxan jarriko du Lasarte-Oriako Udalak, laster

Txintxarri

Basaundi Bailararen berrurbanizazio proiektua martxan jarriko du Lasarte-Oriako Udalak aurten. Horrela eman du ezagutzera Jesus Zaballo alkateak eta Agustin Valdibia Hirigintza zinegotziak prentsaurreko baten bidez. 2018. urte osoa eta 2019ko zati bat beharko dituzte lanak amaitzeko, eta apirilera, beranduenez, amaituta izango direla iragarri dute. Udalaren parte hartze prozesu baten bidez, Basaundi Bailarako auzotarrek eskaerak egiteko aukera izan zuten, eta horiek guztiak kontuan hartuta egin du Sestrak auzoaren berrurbanizazio proiektuaren diseinua. Atzo aurkeztu zizkieten planoak bizilagunei, eta azken pausua falta da orain; lizitazioa atera eta dagokion enpresak obrak egitea.

Basaundi "irisgarri" egingo du proiektuak. Orain arteko urbanizazioagatik, eskailera ugari daude etxebizitzetara sartzeko, eta horiek desagertu eta aldapak jarriko dituztela aurreratu dute udal ordezkariak. Horrekin batera, auzoa oinezkoen eremu bihurtuko da, eta autoen garraioa kanpoaldetik egingo da aurrerantzean. Dena den, larrialdi kasuetarako, garraio zerbitzuentzat sarbidea izango da.



Agustin Valdibia eta Jesus Zaballo, proiektua aurkezten. TXINTXARRI

Autoak aparkatzeko eremuak auzo kanpoaldean jarriko dituzte. Aparkaleku kopuruan ez da apenas aldaketarik egongo; alkatearen esanetan, plaza bakarra galduko da.

Espazio berriak

Bizilagunen beste eskakizun batzuei erantzuna emateko, goiko plazan jolas eremu estali bat egingo dute. Horrela, orain arteko beheko jolas eremua desagertuko da, eta espazio hori, auzoko jaietarako eta bestelako ekintzak antolatze bideratuko dute.

Auzoaren goiko aldean, kirola egiteko makinak jarriko dituzte. Hori ere auzotarren eskaerari

erantzunez. Bizikletak aparkatzeko bi leku ere gehituko ditu proiektuak. Horien kokapena bizilagunek erabaki dute. Begi bistan jarriko dituzte, horrela, inoiz gertatu diren lapurrekin amaitu asmoz.


Basaundiko etxebizitza gehienek ez dute igogailurik, eta horri irtenbide emateko, igogailuak jartzeko puntuak ere hauteman ditu Sestrak. Hori bai, bizilagun elkarteek erabakiko dute horiek jarri edo ez. Komun publiko bat egitea ere aurreikusten da. Proiektua gauzatzeko 1.800.000 euroko inbertsioa egingo du, udalak.



TXINTXARRI

300 euroko saria Salsamendiri

Gidabaimena euskaraz ateratzeak badu saria: Alex Salsamendi herritarri 301,9 eurokoa eman diote. Gidabaimena euskaraz atera dutenen artean zozketa egin dute, eta lasarteoriatarri egokitu zaio saria. Jon Antxordoki Euskara Batzordeko buruaren eskutik jaso du txeketa. Mugica autoeskolako Ana Mujika ere izan da sari banaketan.



TXINTXARRI

'HorKonpon', kalteen berri emateko

Lasarte-Oriako Udalak *HorKonpon* aplikazioa jarri du erabilgarri. Horri esker, herritarrek kaleetan eta plazetan dauden kalteen berri eman ahalko dute, tabletaren edo sakelekoaren bitartez. Erabilera errazekoa da. Kaltearen argazki bat atera eta azalpena bidali behar dute herritarrek. Aplikazioa Lasarte-Oriako udaleko webean dago eskuragarri, baita *GooglePlay*-n eta *AppStore*-n ere.

'Rigoletto'-k irekiko du opera denboraldia Lasarte-Orian

Hilaren bigarren asteazkenetan opera emanaldiak ikusi ahalko dira kultur etxean, euskarri digitalean

Txintxarri

Opera bat zineman. Ez da antzezlekuan ikustea bezala, baina antzeko esperientzia izan daiteke. Egungo euskarri digitalek ikus-entzunezkoa kalitate onean bistartzeko eta

entzunarazteko ahalmena dute. Obra batez gozatzeko aukera paregabea eskaintzen dute, eta, gainera, baditu beste abantaila batzuk: prezioa. Lasarte-Oriako Udaleko Kultura sailak, Danok Kide gurasoen elkartearen lagun-

tzarekin, opera denboraldia hasiko du, datorren asteazkenean. *Rigoletto* izango da eskainiko duten lehen lana. Sarrerak 7,5 euro balioko ditu alde aurretik erosten badira. Unean bertan hartuz gero, berriz, bederatzi euro.

Kultura sailak herriko ikus-entzuleak kontuan hartuta abiatu du zikloa. Eta ohitura moduko bat ezarri nahi dute; hileko bigarren asteazkenean izango dira emanaldiak, otsailetik maiatza bitartean.

"Kultura eskaintza asteburutik atera nahi dugu, astegunetan ere aukerak emateko", azaldu du Juantxi Ugarte kultur etxeko teknikariak.

Herritarren erantzuna ikusita erabakiko dute emanaldi gehiago eskaini edo ez.

Danok Kide

Jesus Mari Egizabal Danok Kideko ordezkariak eman ditu programaren xehetasunak. Musika klasikoa eta opera zalea da, eta programa ontzen lagundu

du. Bilboko Euskalduna jauregiko operak ikustera joaten da askotan. "Zinema digitalari esker, ematen du opera barruan zaudela, oholtza gainean". Operak zuzenean ikusteko aukera askorik ez dago inguruan; askotan Bilbora joan behar izaten du. Alde horretatik, kultur etxeko prezioa "onargarria" dela uste du: "Ideia bat egiteko; Bilbon sarrera merkeenak 54 euro balio ditu, eta laugarren solairuan eserarazten zaituzte, eszenatokitik oso urruti".

Planetan zehar bidaiian urperatzeko gonbita

Astelehenean hasiko da Nazioarteko Itsaspeko Zinema Lasarte-Orian. Hilaren 12an, 19an eta 26an itsasoari lotutako film laburrak eta dokumentalak emango dituzte. Emanaldiak 19:00etan izango dira, Manuel Lekuona kultur etxean, doan

Txintxarri

Nazioarteko Itsaspeko Zinema Zikloak bere lekua egin du Lasarte-Orian. Orain zazpi urte hasi ziren lehen aldiz zinemaldiko filmak eta dokumentalak herrian ematen, eta ordutik urtetik urtera ireki dute urazpiko beste munduak ezagutzeko erakuslehoa. Aurten 41. aldiz egingo dute Donostiako Itsaspeko Zikloa; nazioartean erreferentia bilakatu da, eta punta puntako ikus-entzunezkoak iristen zaizkie. Horietako batzuek gozatzeko aukera izango da datozen asteetan. Otsaileko astelehenean, hilaren 12an, 19an eta 26an emango dituzte, 19:00etan, Manuel Lekuona kultur etxean.

Itsaspeko Real Sociedad elkarteak antolatzen du ekimena. "70 film eta dokumental baino gehiago jaso ditugu aurten, denak kalitate handikoak", esan du David Sanchez lasarteoriatarrak, jaialdiko zuzendariak. Herrialde askotatik bidaltzen dizkiete filmak.



Egizabal, Sanchez, Maite Iglesias Kultura zinegotzia eta Ugarte teknikaria. TXINTXARRI

"Erreferente bat gara. Askok filmak aurkezteko erabiltzen dute gure zikloa".

Sanchezek bidaiaren baten moduan deskribatu du zinemaldia. "Maldivak, Indonesia, Sudan, Filipinak, Egipto, Kantauri itsasoa... Leku horietara lekualdatuko gaituzte ikus-entzunezkoak". Filma ikusi aurretik jakinaraziko dute bakoitzak lortu dituen sariak,

horrela ikus-entzuleek lan nabarmenen berri izan dezaten. Programa ofizialean ere azaltzen da datu hori. www.cimasub.com webgunean dago zikloari buruzko informazio guztia.

Film laburrak

Lasarte-Orian zortzi film labur, hiru dokumental labur, eta beste hiru luze emango dituzte. "Film laburrak oso indartsuak dira, biziak, irudi ikusgarriekin", esan du Sanchezek. *Costa Rica* lana nabarmendu du, aurtengo zikloko irabazlea. *Sleeping volcano Island* ere aipatu du. "Tenerifera eramango gaitu, eta zonalde hori erakutsiko digu". Ispilu likidoa dokumentalarekin itxiko dute zikloa. "Rafa Herrero erreferentzia bat da munduan, eta bere lana ikusgarria da. Grabatzeko oso zailak diren eszenak ditu".

Udaleko kultura sailak eta Danok Kide gurasoen elkartearen laguntza du zinemaldiak. Hain zuzen, haiei esker eskaintzen dituzte proiektzioak doan. Danok Kideko Juan Mari Egizabalen arabera, beste herrietan baino arrakasta handiagoa du Lasarte-Orian zikloak. "300 pertsona baino gehiago biltzen dira. Gure erroka da aurten 400 baino gehiago izatea".

NEURE KABUZ



MIKEL YARZA ARTOLA

Kultura ala kontsumoa

Badatoz Inauteriak eta, urtero lez, lasarteoriatarrok, mozarroak soinean, kalera atera eta festan murgilduko gara. Beteta ikusiko ditugu herriko kale eta plazak, eta jai giroa familia zein lagunartean gozatzeko probestuko. Baina, aldera dezagun argazki koloretsu hori, urteko asteburu arrunt batekin. Kaleak erdi hutsik, tabernak topera.

Taberna da nagusi asteburuz, bertan egin ohi du festa gazteriak. Badira batzuen gozamenaren posible egiteko bitarte horretan lanean aritzen direnak, baina tabernetara bertaratu ez eta lagunaren lokalean geratzea nahiago dutenak ere. Kanean, ordea, ezer gutxi. Musika, antzerki, dantza, pintura edota beste edozein diziplina artistikoren emanaldiek biziberritu litzateke gure txokoak, baina herriko plaza erdi hutsik topatu ohi dugu astebururo, baita bertako eszenatokia ere, sortzaile lasartearen topaleku izan litekeen hori bera. Kultur egitasmoek badute tartea herriko zenbait gunetan, eta ziurrenik lerrook irakurtzen dituzten hainbat pertsonak hartuko dute parte halako jardueretan. Erroka, ordea, sormena kalera ateratzea da, bertan eratzten baita, azken batean, begirada ezberdinen arteko elkartruke aberatsena.

Kulturaz ari garenean, batzuek nahiago izaten dute kontsumo hitza alboratu, sormenarekin loturiko ekimenak merkatu kutsuko adierarekin lotzea ekiditeko asmoz. Bada, hain zuzen horregatik, hausnartzeko modukoa da kulturarekiko dugun jarrera; baita berau besarkatu eta sustatu ordez, gehiengo zabalaren aisia jana eta edana nagusitzea ere. Tabernarien lana estimatzekoa da, noski, eta guneok ere badira herritarren beharrezko topagune. Baina gogora dezagun, herria bizirik mantentzeko, ezinbesteko dela sormena plazara eraman eta denon artean kontsumitzea.



TXINTXARRI

Biyak Bat, taberna inauguratuta

Biyat Bateko tarbernak kudeatzailerik aldaketa izan du, eta zerbitzu berria inauguratzeko festa txiki bat egin zuten asteazkenean. Paella handi bat egin zuten, eta gerturatu zen orok izan zuen mokadu bat hartzeko aukera.



NOAOO
BIDAIAK

IRTEERA MAIATZEAN
Noaoak gidatutako talde bidaiak.
Lasartetik irtenda.

T.: 943 373 613 • info@noaoa.eus • Hipodromo Etorbidea 10, Lasarte-Oria

Egitaraua

Otsailak 12

- 19:00 Isiltasuna. Jose Carlos Rando Lara
- 19:05 The night its mysteries. Pedro Sarmiento Vazquez
- 19:15 SynDoc: Signatidoen mundu ezezaguna. Pablo J. Garrido
- 20:00 Itsas magalean. Maite Erauskin Extramiana
- 20:10 Sleeping volcano Island. Carlos Virgili Ribe

Otsailak 19

- 19:00 Maldivetako bihotzetan. Jose Luis Huertas Nadal
- 19:05 Costa Rica. Edwar Herreño
- 19:10 Khelone The Punishment of Hermes. Vicente Leal Juan
- 19:20 Eduard Admetlla, arrainen laguna. Gorka Leclercq

Otsailak 26

- 19:00 Cimasub 2017ko argazki lehiaketako irabazleak
- 19:05 Marea Gorriak. Manuel Enrique Garcia Blanco
- 19:30 Cabo de Palos: balkoi bat Mediterraneora. Ricar Morer
- 19:35 K-Komodo and beyond. Julie Ouimet
- 19:40 Ispilu likidoa. Rafa Herrero Massieu

"Egindako lan onaren baieztapena da saria"

Hamahiru izendapenetatik hamar Goya lortu ditu 'Handia' filmak. Horien artean, David Heras lasarteoriatarrena. Efektu bereziekin egindako lanagatik eskuratu du garaikur handia, eta une pozgarria bizitzen ari da uneotan. Beste lan batzuk ditu esku artean

Maddi Noriega

Izugarria da *Handia* euskarazko filmak iragan larunbatean lortutakoa. Hamahiru izendapenekin joan zen film luze lan taldea Goya sarien ekitaldira, eta horietatik hamar ekarri dituzte Euskal Herrira. Horien artean, bat Lasarte-Oriara, hain zuzen. David Heras herritarra *Handia* eta *Verónica* filmetako efektu bereziengatik zegoen izendatua, eta euskal filmean egindako lanagatik jaso du saria.

"Pozarren" dago lasarteoriatarra, noski, ez da gutxiagorako. Oraindik ere "guztia bizitzen" ari dela aitortu du.

Aurretik egindako lanengatik, bost aldiz izan da izendatua Heras, baina seigarrenean iritsi da hainbeste itxarondako saria: "Aurreko izendapenetan ez nuen saririk eskuratu, eta aurten, tokatzen zitzaidala pentsatzen nuen arren, nire izena entzun arte ez nuen sinetsi".

Efektu bereziengatik saria jasotzerako, ordea, eskuratuak zituen *Handia*-k hainbait Goya. Aktore onenaren sariak zabaldu zuen ekitaldia, eta Eneko Sagardoi *erraldioak* jaso zuen.

Ekitaldia "zizarraz beterik" hasi eta bizi zuela azaldu du Herasek: "Aurreko urteekin alderatuta laburra egin zait. Hamar sari lortu ditu *Handia*-k, eta ez dugu izan, apenas, denborarik aspertzeko".

Behin sariak eskuratu eta ekitaldia amaituta, lan talde guztia elkartu eta orduan baretu ziren tentsioak. Horrela jakinarazi du lasarteoriatarrak: "Galaren ostean hasi ginen elkarri besarkadak ematen, muxuka, estatuak mahai gainean jarri eta familia argazkia atera genuen".

Egun "zoragarri" gisa gogoratzen du larunbatekoa Herasek, baina tarte gutxi izan du lortutakoa behar bezala barneratzeko. Izan ere, igandean,



David Heras (eskuinean) Goya saria eskuetan duela. DAVID HERAS

lanera itzuli behar izan zuen: "Zinemaren munduan gauzak horrela dira".

Egindako lan eta esfortzu guztien "ordainsaria" da Goya lasarteoriatarrentzat. Izendapena jaso izana egindako lan onaren "aitortza" dela dio, eta sariak, berriz, egindako lana ona dela baieztatu du.

Hiru sariren falta

Pozik, "euforiaz beteta" dago *Handia*-ko lantalde guztia lortutakoarekin; badute nahikoa motibo horretarako. Baina Herasek azaldu du "arraroa" egin zaiola zuzendari eta film onenaren sariak ez eskuratu izana. Horietako baten bat faltan sumatu du.

Kontatzeko modua arrakastaren giltzarrietako bat izan dela uste du. "Gaur egun, ezberdina denarekin geroz eta naturalago jokatzeko dugu, baina garai haietan, ezberdinak ziren pertsonak jendaurrean erakusten ziren. Denen aurrean arraro gisa agertzen zituzten, eta filmak oso ongi ematen du horren berri". Zuzendariak "oso modu egokian" jakin dute hori transmititzen, eta ikuslearengana ere iritsi da istorioa.

Handia-ren gidioa "sekulakoa" dela nabarmendu du Herasek.

"Gidoi horrekin lan egitea polita izan da".

Orain, egindako lanaren trukean jaso dute aitortza, baina ez soilik profesionalena. Zorion mezu ugari jaso ditu lasarteoriatarrek larunbatagaz geroztik. "Sari banaketaren ostean, sakelako telefonoa hartu eta 650 mezu ikusi nituenean agobiatu egin nintzen". Horiei guztiei erantzungo diela esan du, baina horretarako ere denbora behar du: "Astelehenean, lau orduz aritu nintzen mezuak erantzuten".

Poztasunari eutsita, lanean jarraitzeko momentua du orain. Dagoeneko baditu beste zenbait proiektu esku artean, eta horiekin lanean ari da, buru-belarri.

Errementari euskarazko filmaren grabaketak amaitu dituzte, eta bertan lanean aritu da Heras, Eneko Sagardoiarekin batera.

Uneotan, Hugo Stuvan zuzendariaren *Solo* filmaren ekoizpen osteko lanetan ari da, baita Koldo Serra eta Pako Plaza zinemagileekin lanak grabatzen ere.

Bigarren Goya bat eskuratu nahi du Herasek, eta horren bila lanean jarraituko du. Ibilbide oparoa du zinemagintzan; pasioz ekiten dion lanbideari, eta ez dio bere buruari mugak jartzen nahi duena lortzeko.



TXINTXARRI

Giroa hotz, baina eztarriak bero

Giro hotza izan zen igandean, baina horrek ez zituen Santa Ageda bezperan kantuan aritu zirenen eztarriak hoztu. Urteroko ohiturari jarraituz, oles egitera atera ziren Zabaleta Auzolan, Erketz EDT, Earra! bertso eskola eta Xumela abesbatza. Kalez kale ibili ziren, makilak eskuetan.

Zabaletarrek goizean astindu zituzten makilak, eta beste hiru elkarteak arratsaldera arte itxaron zuten.


'Ergela', psikologoan

Sara Cozar eta Joseba Apaolaza aktoreek *Ergela* antzezlan eskaini zuten larunbatean.

Dirua erraz irabaziko zuelakoan froga psikologiko batzuk egiteko prest agertu, eta gorriak eta bi ikusten bukatu. Hori gertatu zitzaion psikologoarengana (Sara Cortazar) joan zen gizon "ergelari" (Joseba Apaolaza).

Arazo ekonomikoak ditu gizonak, eta, horregatik, onartzen du bere bizitza pribatuari buruzko hainbat galdera erantzutea.

Ikus-entzuleek primeran pasa zuten taula gaineko joko psikologikoarekin.



TXINTXARRI

7.542 euroko inbertsioa egin du udalak, Gaztelekuan

Inbertsio horien bitartez Gaztelekuko zenbait gabezia arinduko ditu udalak. Eraikinaren beheko solairurako hiru hezetasun-kengailu erosi ditu. Erosketak 908 euroko kostua izan du.

Horrekin batera, telebista berri bat ere erosi dute, 335 eurotan. Aurretik bazegoen bat, baina iragan apirilean lapurtu zuten.

Gaztelekuko eskailerapeko eremua "alferrik galduta" zegoela ikusi dute, eta espazio hori

aprobetxatzeko, armairu bat jarri dute. Biltegi moduan erabiliko dutela azaldu du udalak. Armairua egiteko Antonio Urruzola kontratu dute, eta 5.185 euroko kostua izan du.

Inbertsioekin amaitzeko, hiru binilo diseinatze enkargua egin dio udalak Bizker enpresari, 431 euroren truke. Horien bitartez, dantzako gelek eta KZ Guneak diskrezio gehiago izango dute.

Binilo horiekin batera, Gaztelekuen izena daraman eraikin kanpoaldeko biniloa ere ordezkatzeko du Bizkerrek. Horrek 679 euroko kostua izango du.

Gimnasiako kode berriarekin bueltaka

LOKEko Gimnasia Erritmiko sailak denboraldia hasi du, Azpeitian jokaturako jardunaldian. Senior A taldeak ezin izan du taldea osatu, eta ez du lehiatu. Federazioak arauak moldatu ditu, eta nahaste handia sortu du kirolarien artean

Adrian Garcia

LOKEko gimnastek hasi dute denboraldia, baina ez nahi zuten moduan. Azpeitian jokatu dute Amateur txapelketako lehen faseko jardunaldia. Oro har, nahas pila handia egon da arauekin, kode berria ezarri baitu federazioak. "Gimnasia erritmikoan puntuazio kodea aldatzen dute Olinpiar Jokoen ondorengo urtean. Ondorioz, lau urtetik behin arau berri guztiak ikasi behar ditugu", azaldu du Maite Ruedak, LOKEko gimnasia erritmikoko arduradunak. Gimnastak ez ezik, epaileek eta entrenatzaileek ere zailtasunak dituzte arau berriak barneratzeko, eta gaizki ulertuak ohikoak izan ohi dira lehen txapelketetan. Eta Lasarte-Oriako gimnastek sufritu dituzte ondorioak.

Kadeteko bi taldeak sailkapeneko erdialdean eutsi diote. Kadete B kategoriako LOKE-Oriarte taldea hamargarren geratu da; bi uztai eta hiru pilotekin lehiatu dute. Kateteko berberean, LOKE-Santa Teresa bederatzigarren geratu da; lau gimnasta dira, eta bi uztai eta bi pilotekin lehiatu dute. Lehen aldia da talde honek



Aizpea Arroyo, Senior A taldeko gimnasta, Azpeitian, ariketa betean. MAITE RUEDA

Lasarte-Orian entrenatzen duela, orain arte haien ikastetxean egiten baitzuten. Guztira, hamasei talde daude Kadete B kategorian.

Senior A norbanakoetan, aldiz, Alazne Gonzalez sailkatu da hoberen, seigarren postuan. Meritua du gimnastak, lehen urtea baitu kategorian. Aizpea Arroyo zortzigarren sailkatu da; Garazi Gomez hamabosgarren; eta Ainara Apeztegia hamaseigarren.

Hemezortzi gimnastak parte hartu dute kategorian horretan.

Bestalde, Senior A taldeak ezin izan du lehiatu, taldekide bat gaixo jarri delako, eta, ondorioz, ezin izan dute taldea osatu.

Urte zaila dute aurretik kirolariek eta entrenatzaileek, denboraldi osoa emango baitute kode berrira moldatzen. "Lehiaketa batetik bestera ere aldaketak egin dituzte, orain arte egin ez dutena", kexatu da

Rueda. Gipuzkoako bederatzik elkartek idatzi bat igorri diote federazioari, eskatzeko aldaketak pixkanaka ezartzeko. "Ez du askorako balio izan".

Edonola ere, denboraldi berriari gogoz ekin dio LOKEko Gimnasia Erritmiko sailak. Rueda ez dago bakarrik; Amaia Calvo, Naiara Cid, Garazi Gomez eta Aizpea Arroyo entrenatzaileen laguntza du. "Horien lana gabe ezingo genuke aurrera egin".

Handia da LOKEko saila; aurtun gehiago hazi da, gainera. Benjaminetatik senior bitarteko kategoriak dituzte; 90 kirolari baino gehiago, denera, gehienak haurrak. "Oso pozgarria da horrenbeste gaztetxo ikustea. Lan egiteko gogoia pizten dizu". Ikasturte amaierako erakusketa izan ohi dute gimnasta gaztetxoek zita garrantzitsuena.

Aurtun berriro ere sortu dute benjaminen taldea; erakusketetan parte hartzen dute. LOKEk zailagoa du gaztetxo horiekin, beste elkartetan haurrak bi urte lehenago hasten baitira

gimnasia erritmikoan. "Besteekin alderatuta, bi urte geroago hasten gara". Halere, aurtun "talde ona" dute, eta topaketetan parte hartzera animatu dira.

Senior A taldea

Seniorrak maila gorenean jokatzeko dute, A kategorian. Lau norbanako eta talde bat dituzte -bost pertsonen osatzen dute taldea-. Ahalegin handia egin behar dute neskek, ikasketak eta kirola uztartzen baitituzte gehienek. Eta zaila izaten dute elkartzeko denbora eta tokia aurkitzen. "Larunbat goizetan entrenatzen dugu askotan, lasai ibiltzen baikara pistan".

Denboraldiko helburua argi du Ruedak: "Gipuzkoako txapelketan sartu behar dugu". Azken urteetan bete dute erronka, eta Euskadiko Txapelketan ere lehiatu dira batzuk, "emaitza onekin". Haatik, ezkor samar dago aurtun: "Kode berriarekin ez dakit nola ibiliko garen".



Alazne Gozalez, pilotarekin egindako ariketa batean. MAITE RUEDA

ASTEBURUKO HITZORDUAK

FUTBOLA
LURRALDE MAILA IGOERA FASEA
Ostadar SKT - Eibar SAD Larunbata. 15:30. Michelinen.
JUBENILEN OHOREZKO MAILA
Amaiak Bat KE - Ostadar SKT Larunbata. 10:00. Deban.
JUBENILEN LEHENENGO MAILA IGOERA FASEA
Hondarribia FE - Ostadar SKT Larunbata. 16:00. Hondarribian.
KADETEEN OHOREZKO MAILA
Ostadar SKT - Martutene KE Larunbata. 12:00. Michelinen.

KADETEEN IGOERA FASEA
Beti Ona CD - Ostadar SKT A Larunbata. 10:45. Errenterian.
ARETO-FUTBOLA
ESTATUKO HIRUGARREN MAILA
Eguzki Areto Futbola- Internacional Larunbata. 16:00. Kiroldegian.
GIPUZKOAKO LEHENENGO MAILA
Isu Leihoak Eguzki - Idiazabal BaiReformas Ostirala. 20:50. Kiroldegian.
GIPUZKOAKO BIGARREN MAILA
Miren Taberna - Cecilia Frutadenda Eguzki Larunbata. 17:30. Oiartzunen.

GIPUZKOAKO SENIOR LIGA
Trintxerpe CD - Trumoi Taberna Eguzki Ostirala. 21:30. Pasai Donibanen.
JUBENILAK
Internacional de Intxaurren - Bar Lasarte Eguzki Igandea. 10:30. Donostian.
KADETEEN GIPUZKOAKO LIGA
Herrikide - Balerdi Harategia Eguzki Larunbata. 12:00. Tolosan.
SASKIBALOA
KADETE ERRENDIMENDUA
Ostadar SKT - Grupo Eme Oiarso Larunbata. 16:00. Kiroldegian.

KADETE PARTIZIPAZIOA
Ostadar SKT B- Grupo Eme Oiarso Larunbata. 09:30. Kiroldegian.
PILOTA
INFANTILAK BIGARREN MAILA
Intza 1 - Hernani 4 Ostirala. 19:15. Michelingo frontoian.
Intza 2 - Zestoa Ostirala. 19:15. Michelingo frontoian.
BIGARREN URTEKO ALEBINAK
Intza 1 - Gazteleku 3 Ostirala. 19:15. Michelingo frontoian.
Ilunpe 3 - Intza 2 Ostirala. 19:00. Azpeitiako frontoi txikian.
Gazteleku 2 - Intza 3 Ostirala. 19:30. Andoaingo Arrate frontoian.

ERRUGBIA
EUSKAL LIGA
Bera Bera RT - Babyauto Zarautz RT Larunbata. 16:00. Donostian.
18 URTEZ AZPIKOAK
Gernika RT - Babyauto Zarautz Beltzak RT Larunbata. 12:00. Bilbon.
16 URTEZ AZPIKOAK
La Unica - Babyauto Zarautz Beltzak RT Larunbata. 10:00. Bilbon.
TXIRRINDULARITZA
ESPAINIAKO PISTAKO KOPA
Asier Pozo kadetea Espainiako Kopako azken proba arituko da. Larunbata eta igandea. 10:00. Mallorcan.

Buruntzaldeak lau domina lortu ditu Gipuzkoakoan

Buruntzaldea IKTko gaztetxoek lau domina eta marka ugari erdietsi dituzte Gipuzkoako Eskolarteko XXXIV txapelketan. Horrez gain, Ainhoa Martin, Leire Martin eta Paula Sevillano deitu ditu Gipuzkoako Seleksioak asteburuan entrenatzera

Txintxarri

Gipuzkoako Eskolarteko XXXIV. Txapelketa lehiatu dute Azpeitian asteburuan, eta Buruntzaldea IKTko 2004. eta 2006. urteen artean jaiotako hemezortzi gaztetxo izan dira nor baino nor. Urre bat, zilar bat eta bi brontze eskuratu dituzte, baita hainbat marka ondu ere.

"Emaitzetan segituan antzeman da urte hasieratik eginiko lana. Orohar, igerilari guztiek lortu dute markak hobetzea, eta hainbat igerilari izan ditugu dominak lortzen edo lortzeko oso gertu geratu direnak", nabarmendu du Borja Apeztegia entrenatzaileak.

Txapelketa hiru jardunalditan banatu da, eta igerilari bakoitzak jardunaldiko proba batean egin du igeri.

Aipagarriak dira Eneko Elizasuk lortutako bi dominak. 400 metro lau estiloetan txapeldun izan da, eta 200 metro estilo librean brontzezko domina eskuratu du. Bi probatan hobetu du bere marka.

Nora Imaz 800 metro libre proba "gogorrean" bigarren izan da, 10:48,36 markari esker. 200 metro estiloetan, berriz, eskutik ihes egin dio dominak, eta laugarren izan da. Hala ere, bere marka 21 segundotan ondu du. Imazek



Podiumean izan ziren Buruntzaldea IKTko gaztetxoak. BURUNTZALDEA IKT

ere laugarren postua lortu du bular estiloko 200 metroko proban, 3:16,42rekin "proba eder bat eginda".

Iker Felipek ere "emaitza bikaina" lortu du 200 metro lau estilo proban, eta brontzezko domina janztea lortu du, 2:50,25 marka eginez.

"Dominarik jaso gabe baina benetan bikain aritu dira gainontzeko taldekide guztiak ere", adierazi du entrenatzaileak. Hala nola, Haritz Gomez eta Julen Azpiroz, laugarren eta

bosgarren izan dira 100 tximeletan. 100 bular proban, Nerea Irazu bosgarren izan da. Bosgarren postuan izan da baita ere Saioa Elola, kasu honetan 200 bizkar proban.

Gipuzkoako seleksioaren deia

Bestalde, Ainhoa Martinek, Leire Martinek eta Paula Sevillanok Gipuzkoako seleksioaren deia jaso dute. Larunbatean, otsailaren 10ean, infantil mailako beste igerilari batzuekin entrenamendua dute.

Junior Partaidetza taldeak igoera fasea jokatuko du

Ostadar SKTko saskibaloit taldeak 40-59 garaitu du TAKE taldea, faseko azken jardunaldian

Txintxarri

Garaipena erdietsiz bukatu du Ostadar SKTko junior mailako Partaidetza taldeak. Tolosan jokatutako partidaren TAKE garaitu du, 40-59.

Lehenengo laurdena nahiko berdindua izan da azken minutuetara arte. Markagailuan hamarnako berdinketa zegoenean, Ostadarrek aurre hartu dio TAKEri eta 10-17 amaitu dute.

Bigarren laurdenean TAKE erasora atera da eta markagailuan gerturatu da (18-19). Arerioa hain gertu ikustean lo zorrotik atera dira jokalariek eta hamar puntu eskuratu dituzte, 18-29koa markagailuan ezarri.

Atsedendialdiaren ostean indartsu atera dira urdin-beltzak, eta bi taldeen arteko tartea hogeit puntukoa izan da. TAKE hurbiltzen saiatu da, baina ezin izan du ezer egin. 31-52 amaitu da hirugarren laurdena.



Junior taldea jokoan. OSTADAR SASKI

Azken zatian, berriz, saskiratze gutxi ikusi ahal izan dira. Bi taldeak indarrak neurtu dituzte, eta 9-6 izan da partziala.

Igoera fasea

Garaipen honi esker, 21 punturekin bere taldeko bigarren sailkatu da taldea, eta igoera faserako txartela eskuratu du. Asteburu honetan atsedena du taldeak, eta hurrengo astean jokatuko du fase berriko lehen buruz burukoa.

Babyauto Zarautzek ezin izan du liderraren aurka

Ubu Colina Burgos liderraren aurka jokatu du Babyauto Zarautzek 17. Jardunaldian. Burgoseko taldeak ez du partidarik galdu denboraldi osoan. Ongi prestatu da aurten igoera jokatzeke asmotan, eta nazioarteko jokalariekin osatu du taldea.

Babyauto Zarautzek ongi hasi du partida. Zigor kolpe bati esker aurreratatu da, eta 35. minutura

arte emaitza mantentzea lortu du. Baina Burgosek bere arma guztiak atera eta partidari buelta eman dio. Jokoa zabaldu eta zarautzarrek ezin izan dituzte erasoak geldiarazi, ezta aurka egin ere. 50-10 amaitu da partida. Beltzak taldeko harrobiko gazteen lana azpimarratzekoa da, profesionalak diren jokalarien aurka jokatu baitute. Ander eta Xabier Rekondo, Unai Urruzola, Xabi Prieto eta Adrian Apaolaza izan dira norgehiagoka honetan parte hartu dutenak.



Santi Arrozpide sarasola
Centro de cumplimiento
Ctra N-630 km 314
37.799 topas salamanca

Javi Gallaga Ruiz
Centro penitenciario
Carretera Sevilla- Madrid Km 391
Apdo 479
14015 Alcolea
Cordoba

INAUTERIETAKO GEHIGARRIA



Ofizioen asteburu koloretsua

TXINTXARRI



MAiTE

ESTETIKA ARETOA






Emaiozu ezusteko
polit bat zure
bikoteari,
eta gozatu!

- Aurpegi eta gorputz tratamenduak
- Mota ezberinetako depilazioak
- Solariuma
- Manikura eta pedikura
- Makillajea
- Betileen tindatzea eta permanentea
- ...

Gure tratamendu eta
zerbitzuak opari-txartel
moduan oparitu ditzakezu!
Zerbitzu mistoak

Ordutegi malgua daukagu • Uistin Kalea z/g • Lasarte-Oria • Tel. 943 37 08 45

Eguraldiari kolorez erantzunez

Euripean erre dute Kaxkamalo xomorroa



Haur, gazte eta heldu ugari bildu da puska bila ibiltzeko. TXINTXARRI



Gorputzak berotzeko jaki ezberdinak izan dituzte puska bila ibili diren herritarrak. TXINTXARRI



Aterkia eskuetan elkartzek kalejira alaian joan dira herritarrak. TXINTXARRI



*Nahi edo behar
duzun huraxe
aurkituko duzu
gurean!*

Fernández
ehunak

Kale Nagusia 2 - Tel. 943 36 16 07 - LASARTE-ORIA



Elkartek elkartek ibili dira herritarrak. Elkarteetan abesti eta dantza ugari eskaini dituzte. TXINTXARRI



Eguraldia dela eta, Loidibarren pilotalekuan egin da ekitaldia. Hartza ere izan da bertan. TXINTXARRI



Euskal Inauterietako pertsonaia ezberdinak izan dira Loidibarrenen. TXINTXARRI



Alkateak eta korporazioak akordioa sinatu zuten xomorroekin. TXINTXARRI



Lasarteoriatar eta zubietarrek ederki egin zuten dantza ekitaldi osoan zehar. TXINTXARRI



Euria zen Kaxkamalo xomorro gaiztoaren azken esperantza. Baina ur tanta hotzek ez dituzte suaren garrak itzali, eta Zubietatik etorritako xomorroek eta Lasarte-Oriako gizakiek senidetze ekitaldian adostu bezala, sutara bidali dute Kaxkamalo. Urre eta jakiz betetako kutxa jaso dute zubietarrek, eta, trukean, gaitza egiteari utziko diote. Guztiok irabazten dugu.

Euskal Inauterien antolatzaileek aldaketa batzuk egin behar izan dituzte egitarauan, baina giroa eta ongi pasatzeko gogoak ez dira hoztu.

Goizean zehar, puska bila aritu dira hainbat herritar, herriko elkarte gastronomikoetan barrena: Arrieskalleta, Xirimiri, Udaberri, Ttakunenea eta Intza bisitatu dituzte. Sabela ongi beteta, kantuan eta dantzan aritu dira bazkalordura arte.

Orduak igaro ahala, eguraldia gero eta okerragoa zela ikusita, B plana jarri dute martxan antolatzaileek. Zubietarrek bertan behera utzi dute gure herrirainoko kalejira, eta zuzenean Loidibarren pilotalekura joan dira. Zain zeuzkaten han lasarteoriatarrek, alkatea eta korporazio osoa barne, senidetze ekitaldia egiteko. Hori baino lehen, dantzan sartu dira zubietarrek frontoira. Gero, lasarteoriatarren txanda iritsi da.

Herrira etorritako xomorroen hiru ordezkari negoziatu dute korporazioarekin: urrea eta kutxa bete jaki, gaitza egiteari uztearen truke. Denak geratu dira gustura, eta, ospatzeko, dantzan egin dute, ilundu arte: fandagoak, arin-arinak, txulalai, zazpi jauzi... Zabala izan da erreperorioa. Ttiriki-Ttarrakako ikasle saiatuek jarri dute musika, ohi bezala.

Frontoiaren babesetik atera dira ondoren bertan bildutakoak, eta Kaxkamalo garretan nola erre den ikusi dute.

Datorren urtera arte, gaitzetatik salbu dago herria.

aldizkariak
ESKU-ORRIAK
liburuak
katalogoak
AGENDAK
kartelak
EGUTEGIAK
papeleria
LOGOTIPOAK
koadernoak

INPRENTA
offset eta digitala

DISEINU
GRAFIKOA

DISEINU
EDITORIALA

antza

KOMUNIKAZIO GRAFIKOA

Zirkuitu Ibilbidea 2 · Pab. 1-2
20160 LASARTE-ORIA

Tel. 943 370 738 · info@antza.eus

www.antza.eus



Akordioa ez betetzeagatik, Kaxkamalo xomorroa erre zuten. TXINTXARRI



Loidibarren pilotalekua kanpora eraman zuten Kaxkamalo. TXINTXARRI



Herritarrek adi jarraitu zuten Kaxkamaloren erretzea. TXINTXARRI

Maitte

B ETELU



- B Gestoria**
- B Aholkularitza**
- B Inmobiliaria zerbitzuak**
- B Aseguruak**
- B Etxebizitzaren administrazioa**



Aralar plaza 4 behea, Lasarte-Oria • Tel.: 943 36 48 86 • www.mbetelu.com



Ikastetxeetan mozorro festa egingo dute gaur, ostiralez. TXINTXARRI

Irudimenari etekina ateratzeko ordua

Inauteriak ospatuko dituzte asteburu honetan Lasarte-Orian. Lanbideak dira aurten aukeratuko gaia. Balkoiak telaz eta globoz apaintzeko deia egin dute, herria festa giroan nahasteko. Gaztetxoek ere izango dute bere lekua 'Inahaldunak' egitasmoan

Txintxarri

Suhiltzaileak, mekanikoak, medikuak, erizainak, harakinak, poliziak, irakasleak, politikariak, garbitzaileak, pilotuak, dendariak, tabernariak... Lanbidez jantziko da asteburu honetan Lasarte-Oria, horixe baita Inauterietarako aukeratutako gaia. Burua astindu ondoren, iritsi da irudimenari

etekina ateratzeko ordua, mozorro eta lagun artean ondo pasatzekoa.

Atzo bertan, ostegun gizenean, ekin zioten festari. Lasarte-Oriako Musika Eskolak tradiziozko Kontzertu Bufoa eskaini zuen. Txikienek jarraituko dute festarekin, gaur bertan, ostiral mehean. Ikastetxeetan mozorrotuko dira,

eta gurasoek eta beste senideek ikusi ahal izango dituzte mozorroak soinean. Eguraldiak festa errespetatzen badu behintzat. 15:20ean hasiko dute Landaberrin; Garaikoetxea eraikinean, berriz, 15:30ean; eta Sasoeta Zumaburun 15:40ean.

Ez da ostiraleko ekitaldi bakarra izango. Ttakun Kultur Elkarteak *Inahaldunak* ekimena

antolatu du. Gazte Klubeko eta Kuadrillategiko lagunak Villa Mirentxun bilduko dira, 18:00etatik 21:00etara. Aisia euskaraz eskaini, eta gaztetxoek ahalduz bultzatzea dute helburu. Horrela, mozorro eta ikuskizun lehiaketa egingo dute. Parte hartzaileek antzerkia, dantza edo bertsoak abestuko dituzte, mozorroturik.

Larunbata konpartsen eguna izango da. Eguerdian hasiko dute festa, Okendon. Aurkezpena egin eta mozorro herri lehiaketa hasiko dute. Ondoren, karroza onena eta konpartsen mozorroak sarituko dituzte.

Larunbata, egun handia

Sariak banatuta daudenean hasiko dira tripa betetzen. Okendon bertan herri bazkaria egingo dute. Bazkal ostean ere egingo da zer egin plazan; Super Bingoan jokatu dute. Indarrak bilduta, 17:00etan iritsiko da kazorren desfilea egiteko garaia. Honako konpartsa hauek pate hartuko dute: Zabaleta, Zentro Zibikoa, Larramendizalez, Jalgune, Intzak Parranda, Sasoeta Sasoian eta Erketz. Herrigunetik itzuli bat egin ondoren, berriro bueltatuko dira plazara. Txokolatada izango dute han 20:00etatik aurrera.

Astelehena ere, jai

Baina igandean ez da festa amaituko. Astelehenean *Inahaldun*-en beste saio bat egingo dute. Amaraun Klubeko haur eta gurasoek txanda izango da orduan, 2 eta 8 urte bitarteko haurren eta familien arteko harremana sustatzeko, 17:00etan, Villa Mirentxun.

Txus Alonso Festetako zinegotziak jakinarazi du udalak

Inauteriak

Otsailak 9

- **15:30** Inauteri festa ikastetxeetan.
- **18:00** 'Inahaldunak', Villa Mirentxun.

Otsailak 10

- **12:00** Bilkura Okendo plazan.
- **12:30** Konpartsen aurkezpena.
- **13:30** Bakarkako mozorro lehiaketa.
- **14:00** Karrozen eta konpartsen mozorro lehiaketa eta sari banaketa.
- **14:30** Herri bazkaria, Okendon
- **16:30** Super Bingoa, Okendon.
- **17:00** Konpartsen desfilea.
- **20:00** Txokolatada.
- **23:00** Disko jai.

Otsailak 12

- **17:00** 'Inahaldunak', Villa Mirentxun.

festetarako ezarritako aurrekontua; ia 23.000 euro. 11.000 inguruko dirulaguntza eman dute mozorroetarako eta karrozetarako. Beste 8.000 inguru jardueretarako eta azpiegituretarako. Azkenik, 3.600 jarri dituzte Euskal Inatuterietarako. Jesus Zaballos alkateak eskerrak eman dizkie Ttakun Kultur Elkarteari eta konpartsa guztiei, "festa dibertigarriak prestatzen" egindako lanagatik.

Hiru belaunaldiko esperientzia duten arotzak gara

- Altzairuak neurria
- Era guztietako arotz-lanak
- Egurrezko lurrak eta sintetikoak
- Etxe barruko konponketak

Gure zerbitzu guztiak ikusgai:

www.iurruzola-aroztegia.com

I. Urruzola aroztegia



iurruzolaaroztegia@gmail.com

943 371 200 / 615 784 238

Oria etorbidea 4, behea. 20.160 Lasarte-Oria



Rosa Tejado, Jon Tejado eta Patricia Sanchez, iragan urteko mozorro talde garaileko kideak. TXINTXARRI

"Guztion ideiak batuta, mozorro originala osatu genuen iaz"

ROSA TEJADO, JON TEJADO ETA PATRICIA SANCHEZ IAZKO MOZORRO IRABAZLEAK Ospakizunak, ikuskizunak eta jaiak gaiari helduta, Donostiako udako giroa ekarri zuten iragan urtean Lasarte-Oriako familia batek. Originaltasunari esker, mozorro lehiaketa irabazi zuten

Maddi Noriega

Ate joka dira Inauteriak, eta urteroko mozorro festak ez du hutsik egingo aurten ere. Trapu zaharrak bilatu, eskulan saio pare bat egin eta apain-apain irtengo dira herritarrek festara. Horrela egin asmo dute, aurten ere, Patricia Sanchezek (Lasarte-Oria, 1972), Rosa Tejadok (Lasarte-Oria, 1967) eta Jon Tejadok (Lasarte-Oria, 2006). Ez dakite mozorro onenaren saria eskuratuko ote duten. Iaz halaxe egin zuten. Izan ere, oraindik

ez dute mozorrorik prestatu. Baina ideia bat baino gehiago dauzkate buruan bueltaka, eta ziur garaile izateko saiakera egingo dutela aurten ere. Mozorro garailea nola prestatu zuten kontatu diote TXINTXARRI-ri.

Nola bururatu zitzaizuen Donostiako gaia inauterietara ekartzea?

Rosa Tejado: Guztion artean erabaki genuen. Ideia atera zen, eta hortik, ideia berriak gehitzen joan ginen. Partaide guztien ideiak elkartuta, mozorro originala osatu genuen.

Patricia Sanchez: Taldetxo bat osatzean, bakoitzari ideia asko sortzen zaizkio, eta horrela osatu genuen gure lehengo urteko mozorroa. Ideia oso politik ateratzen dira denen artean eginda.

Oso mozorro originala jantzi zenituzten. Nola prestatu zenituzten?

P.S.: Etxean egin genituen mozorro guztiak. Rosaren etxean elkartzen ginen, eta bertan prestatu genuen guztia: batek Juantxo tabernako papera inprimatu, beste batek polispana erabiliaz Kontxako

barandilla egin zuten, izozkiak ere egiten aritu ginen, eta baita su-festak irudikatzen ere.

Gustura arituko zarete mozorroak prestatzen, noski.

R.T.: Oso gustura aritzen gara, bai. Inauteriak prestatzea aitzakia ederra da familian elkartu eta elkarrekin mozorro jaia bizitzeko. Etorkizunean bizitako une hauek gogora ekartzea polita izango da; beti gogoratuko ditugu prestatzen eta egunean bertan bizitako momentu politikak.

Familian, gainera, artista handiak ditugu, eta denok uztartuta gauza politikak egitea lortu genuen.

Donostiako uda giroa irudikatu zenuten.

P.S.: Bai, hori da. Donostiako Aste Nagusia hartu genuen abiapuntu gisa, eta hori irudikatzeko prestatu genituen gure mozorroak.

Zer ikus daiteke Donostiako Aste Nagusian?

R.T.: Guk, batez ere, ezagunak diren ekitaldiak ekarri genituen Lasarte-Oriara: su-festa, izozkiak janez horiek ikustera joaten den jendea, Donostiako emakume apainak, Euskal Irrati Telebistako kazetaria, besteak beste.

Baina pertsonaia horiek guztiak ez zenituzten hasiera hasieratik finkatuak.

P.S.: Taldera jendea gehitzen joan ahala prestatzen genituen mozorro berriak.

Hasiera batean, Kontxako barandillak eta emakume apainek

osatu behar zuten mozorroa, baina jendea gehitzen zihoan heinean sartu genituen mozorro gehiago. Pixkanaka osatzen joan ginen.

Adin askotariko senitartekoek osatzen duzue taldetxoa. Ziurtatuta al dago taldean erreleboa?

R.J.: Bai, noski. 11 edo hamabi senitartekok osatzen dugu taldea, adin askotarikoak.

Espero zenuten saririk?

P.S.: Nik bai. Kalera irten eta jendearen erreakzioak ikusi eta entzun ostean, irabazi genezakeela pentsatu nuen. Jende askok adierazi zigun oso mozorro ona zela, eta irabazteko aukerak ikusten hasi ginen. Oso ondo pasa genuen.

Lanbideak dira aurtengo gaia. Prest al duzue jada?

P.S.: Oraindik ez dugu ezer zehaztuta. Zerbait pentsatu dugu, baina oraindik ez dugu familian hitz egin.

R.T.: Hasiera batean kanpora joatekoak ginen, baina eguraldi txarragatik herrian geratuko gara, eta beraz, azken uneko mozorroa izango da aurtengoa.

P.S.: Giro polita sortu da azken urteetan, Lasarte-Oriako inauteri asteburuan. Oso polita da herrian bildu eta herriko inauteria bizitzea.

"FAMILIAN ELKARTU ETA MOZORRO JAIA ELKARREKIN BIZITZEKO AITZAKIA EDERRA DA"



Donostiako uda giroa ekarri zuten Lasarte-Oriara. TXINTXARRI

Nerea Eizagirre

Urteak daramatza Erketzek Inauterietan parte hartzen, baina azken urteetan konpartsa modura antolatu da. San Patrick egunari esker, iaz konpartsa onenaren saria eskuratu zuen. Aurten urte garrantzitsua da Erketz EDTrentzat, bere 50. urteurrena ospatuko du eta. Hain zuen, ospakizunetako ekintzetako bat dira Inauteriak. Ainara Adurizek (Lasarte-Oria, 1989) eta Gaizka Ormazabalek (Lasarte-Oria, 1992) kontatu dute konpartsak nola egin dituzten.

Zita garrantzitsua al da zuentzat?

Ainara Aduriz: Garrantzia hartzen ari da. Erketzen Inauterietako konpartsak gorabeherak izan ditu. Aspaldi konpartsa handia ateratzen zen. Hori denbora batean eten zen. Gero berriro ateratzen hasi zen, baina karroza txikiago batekin. Kuadrilla modura ere atera ginen, eta orain dela hiru urte karroza errekuperatu genuen. Urteik urtera jendea animatzen ari da, eta garrantzitsua bihurtzen ari da guretzat. Aurten 60 bat izango gara, hemeretzi haur tarteko.

Gaizka Ormazabal: Egun Erketz taldetik kanpoko ekintza bat da; bere batzorde propioa du. Haiek antolatzen dute azpiegitura guztia, karroza prestatu... Guri papeleoan, dantzak erakusteko, musika aukeratzeko... eskatzen digute laguntza.

Iaz konpartsa irabazlea izan zineten. Saint Patrick eguna aukeratu zenuten, zergatik?

A.A.: Iaz goiz bildu ginen gaiaz hitz egiteko. Ez genuen hasietarik buruan, ideiak bota genituen eta kasuala izan zen. Nire kuadrillako lagun batek aipatu zuen: "Ba Lasarteko gaiarekin lotuta Saint Patrick eguna egin dezakegu".

"Herrian giroa jartzea eta eguna alaitzea dira gure helburuak"

ERKETZ EDT 2017 URTEKO KONPARTSARIK ONENA

Saint Patrick egunean girotutako konpartsa esker, taberna eta guzti, irabazi zuen Erketzek iaz konpartsa onenaren saria

Tipikotik pixkat aldentezagatik egin genuen. Iruditu zitzaigun kolore aldetik erakargarria izango litzatekeela. Mozorroei dagokionez, askatasun baten barruan, bazegoela aukera zerbait komuna egiteko. Musika aldetik aukera asko ematen zuen, eta euskal dantzarekin lotura ere bazuen.

Ezustea eraman zenuten iaz konpartsa saria irabaztean?

A.A.: Nik behintzat ez nuen espero. Pozik gindoazen gure karrozarekin, taberna irlandarrarekin. Batzordeak kriston lana egin zuen. Ez nuen pentsatzen guztia hain borobil izango zela.

G.O.: Ez da karroza bakarririk. Denak nola gindoazen ere ikustekoa zen. Jende pila bildu ginen iaz, 51 pertsona

inguru. Denak ongi jantzita, koloretsua... Hortik irabaztera... Ez genuen buruan.

A.A.: Azkenean gu ongi pasatzera ateratzen gara. Herrian giroa jartzea eta eguna alaitzea dira gure helburuak. Ez goaz lehiaketa irabaztera.

Nola lantzen dituzue gaiak?

G.O.: Aipatu bezala, iaz sortu zen batzordea eta haiek eramaten dute guztia.

A.A.: Batzordea biltzen da, normalean Gabonak baino lehen. Ostean, guztiak bilera egin eta gaia aukeratzen da.

Lanak banatzen dira eta lan taldeak daude. Badaude bi edo hiru gauzak egiten trebeak direnak eta karrozan lanean hasten dira. Beste batzuk musikarekin, besteak jantziekin...

Eta bakoitzak bere jantzia landu behar du...

G.O.: Bai, horrela da. Guztiak mozorrotzeko erraztasunak ematen saiatzen gara. Badago baten bat jantziago dela eta ideiak ematen dituen. Edo mozorroa egina ekartzen duena eta orduan guztiok har ditzakegu ideiak.

Esate baterako, duela hiru urte, guztiak lokalean geratu ginen. Marmokaz gindoazen eta bertan tailerra egin genuen jantzia egiteko. **A.A.:** Taldean ez dugu jostunik. Beste taldeetan patrioiak banatzen dira edo jostuna kontratatzen da. Guk ideiak eta adibideak ematen ditugu eta jendeak bere ekarpenak egiten ditu. Beti zerbait komuna daramagu. Iaz brotxea izan zen eta aurten ere horrela izango da.

G.O.: Azken momentura arte ezustekoak egon daitezke. Gure

artean ez degu hitz egiten eta. Jantziarekin lehia txikia dugula esan daiteke

Dantzak ere prestatzen dituzue.

A.A.: Lehiaketara aurkezteko oholtzan dantza egin behar da.

Desfileko momentua iristean, ordea, ez gara ondo antolatzen. Eta desfilean bertan zaudenean konturatzen zara zerbait egin behar duzula, bi edo hiru koreografia. Orain arte ez diogu garrantziarik eman, baina aurten ere ondo prestatu dugu.

Aurtengo gai edo mozorroez zerbait aurreratu dezakezue?

A.A.: Iaz Inauteriak bukatu orduko argi genuen zein izango zen gaia. Gero Lasarte-Oria ateratako gaiarekin lotu egin dugu. Izan ere, aurten Erketz EDTren 50. urteurrena dela pentsatzen sortutako ideia da.

XIX. mendeko lanbideak da aurtengo konpartsa gaia. Euskal Herriko herri txiki batean garai hartan egon zitekeen lanbideak erakutsiko ditugu, baten bat originala egongo da ziurrenik.

Aurten taldeen aurkezpen ekitaldia zuzendu behar al duzue? Zerbait aurreratu al daiteke?

A.A.: Ez da ezer berezirik egingo. Baina herriarrak animatzen saiatuko gara. Ez gara gauza hauetan iaioak, eta ahal duguna egingo dugu.

Herriarrak konpartsa egitera edo Inauterietan parte hartzera gonbidatzen dituzue?

A.A.: Bai, egun polita da. **G.O.:** Iaz, esate baterako, egun ederra egin zuen eta kriston giroa zegoen. Zortzi konpartsa atera ziren. Pixka bat antolatuta, aukera oso polita da egun pasa egiteko.

A.A.: Sekulako plana da. Ez duenak konpartsa edo karroza handia egin nahi, behintzat kuadrilla modura edo familian ateratzeko aukera badu. Herriari kriston kolorea ematen dio horrek.



Erketz EDTko konpartsa kideak konpartsa aurkezpena egin baino lehen. Aurten XIX. mendeko lanbideak irudikatuko dituzte. TXINTXARRI

Iguarte

SAGARDOTEGIA

- Eguneko menua
- Kaxuelitak
- Sagardotegi menua
- Kuadrilantako menuak, prezio egokitan


'Urte osoan zabalik, zatoz!!'

Inauterietan, afari eta musika girotua!





iguartesagardotegia@gmail.com. Tel.: 658 435 160
Asteasu poligonoa, Iguarte, 11. USURBIL (Urbil ondoan)

ZORION AGURRAK



Oihana
Zorionak sorgina zure bigarren urtebetzean, aitaxo, amatxo, eta Lorearen partez. Asko maite zaitugu!!!



Nora
Zorionak printzesa! Muxu pila guraso, Mikel eta Mariaren partetik.



Iraide
Zorionak printzesa!!!! Oso ondo pasa zure egunean, 4 muxu potolo aita, ama eta Oihaneren partetik!!!



Lurdes
ZORIONAK andereño!!! Egun ona izan dezazula eta urte askotarako!! Muxu asko!

AZOKA TXIKIA

ETXEBIZITZA

ERRENTAN EMAN

Garaje marra alokatzen dut Atsokabarren, Golf plazan, Garaikoetxea eskolaren parean. Autoarentzat edo motorrentzat egokia. Handia eta sarbide onarekin. 659 02 19 45

ERRENTAN HARTU

Etxe txiki baten bila gabilta. 603 194 658

LANA

ESKAITZA

Neska bat behar da ileapaindegian lan egiteko, Lasarte-Orian. Interesatuak deitu 615 781 116 telefonora.

Barazar tabernak zerbitzaria behar du asteburuetarako.

Euskalduna bada, hobeto. Telefonoa: 678 188 818.

ESKAERA

Emakumea eskaintzen da adineko pertsonak eta haurrak zaintzeko. Garbiketa lanak ere egingo nituzke. 677768682

Emakumea eskaintzen da etxeko garbiketa lanak egiteko. Externa edo orduka. Esperientzia du. 722 555 027

Adineko pertsonak zaintzen esperientzia

duen emakumea interna gisa lana egiteko prest. 631 464 176.

HEZKUNTZA

ESKAITZA

LH eta DBHko klase partikularrak edota euskara errefortzurako klaseak emateko prest nago, goizez nahiz arratsalde. 680 967 368.

JAIOTAKOAK

Markel Lopez Lorente. Otsailaren 2an.
Umm-E-Haniya Naeem. Otsailaren 1n.
Iraia Lopez Calero. Urtarrilaren 28an.

HILDAKOAK

Yoana Llanos Benito. Otsailaren 7an.
Anastasia Becerril Campos. Otsailaren 4an.
Pedro Fernandez Bengoetxea. Otsailaren 4an.
Jose Manuel Martin Garcia. Urtarrilaren 9an.

OHARRAK

Eskertza

Eskerrak eman nahi dizkiogu igandean galdu genuen diru-zorroa Udaltzaingora eramane zuen pertsonari. Mila esker.

Haurrei oinarrizko lehen sorospinak egiteko ikastaroa

Gurutze Gorriak haurrei oinarrizko lehen sorospinak egiteko ikastaroa eskainiko du Lasarte-Oriako egoitzan. Ikastaroak 10 ordu iraungo ditu eta saioak hiru egunetan izango dira: otsailaren 14 eta 21, 15:00etatik 18:30era eta otsailaren 28an, 15:00etatik 18:00etara.

Informazio gehiago eskuratu edota

izena emateko lasarte.formación@cruzroja.es helbide elektronikora mezu bat bidali behar da, edo 943 10 30 22 zenbakira deitu.

Izen ematea mugatua da eta ikastaroa gaztelaniaz eskainiko da.

Bertso afari literarioko txartelak

Lasarte-Oriako Irakurle Txokoak bertso afari literarioa antolatu du otsailaren 17an. Lander Garro, Nerea Ibarzabal, Ane Labaka eta Uxue Alberdi izango dira bertan.

Txartelak 20 euro balio du; langabetuek 15 euro ordaindu behar dute. Tikitak salgai ilargi, Jalgi,

Trumoi eta Gure Etxea tabernetan, otsaila 15era arte.

Galizia eta Portugalera bidaia

Biyak Bat elkarteak bidaia antolatu du Galizia eta Portugalera iparraldera, maiatzaren 27tik ekainaren 5ra. Elkarteko bazkideek 530 euro ordaindu behar dituzte; bazkideak ez direnek, berriz, 580 euro.

Izena ematea elkarteko bulegoan egin behar da astelehenetik ostiralera 10:30etik 12:30era.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Ostirala, 9 ACHA-ORBEA

Larunbata, 10 LASA

Igandea, 11 LASA

Astelehena, 12 URBISTONDO

Asteartea, 13 GANDARIAS-URIBE

Asteazkena, 14 ORUE

Osteguna, 15 DE MIGUEL

EGUNEKO FARMAZIAK: 9:00-12:00

ORUE: Jaizkibel plaza 2/ 943 36 26 52

ACHA-ORBEA: Hipodromo et. 6/ 943 36 35 49

DE MIGUEL: Kale Nagusia 32/ 943 37 11 51

LASA: Kale Nagusia 42 atzea/ 943 36 17 74

GIL: Kale Nagusia 24/ 943 36 15 29

URBISTONDO: San Frantzisko 1/ 943 36 65 67

GANDARIAS-URIBE: I. de Loyola 9/ 943 01 95 21

GAUEKO FARMAZIA: 22:00-9:00

Castilla-Larburu: Urbieta kalea 7, Hernani/ 943 55 29 41

Gipuzkoako farmazien eskuko telefonorako 2017ko egutegia eskuratzeko, bidali FARMA 215800 zenbakira. Gehienezko kostua 1,7 euro + WAP deskarga, operadorearen arabera (www.cofgipuzkoa.com).

TELEFONOAK

UDALAREN TELEFONOAK:

ERREGISTROA: 943 371 629

EUSKARAKO ZERBITZUA: 943 376 184

KIROLDEGIA: 943 376 182

MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA: 9

43 376 181

GIZARTE ZERBITZUAK: 943 376 179

KIUB: 943 361 605

UDAL EUSKALTEGIA: 943 361 621

MUNTERI AEK: 943 372 863

LARRIALDIKO TELEFONOAK:

OSASUN ZENTROA: 943 007 960

DYA: 943 464 622

GURUTZE GORRIA: 943 363 953

UDALTZAINAK: 943 362 442

ERTZAINZAK: 943 538 840

SOS DEIAK: 112

ESKELAK

ESKELAK JARTZEKO:

Txintxarri erredakzioan
943 37 14 48

- ▶ Hileta egunean eskela txintxarri.eus-en + Oroigarria edo Esker ona Txintxarri paperean 90€
- ▶ Eskela mota guztiak Txintxarri paperean + txintxarri.eus-en: 90€
- ▶ Eskela mota guztiak paperean: 80€

**Txintxarri: doan eta euskaraz
Lasarte-Oriako etxe guztietan**

txintxarri

www.txintxarri.eus

Argitaratzailea

Ttakun Kultur Elkarte
Geltoki kalea 4
20160 LASARTE-ORIA
G-20407557

Erredakzioa

Nerea Eizagirre, Inigo Gonzalez,
Maddi Noriega eta Adrian Garcia.

Publizitatea

Aranxi Zulaika.

Laguntzaileak

Unai Muñoa, Gorka Lasa,
Ane Labaka, Mailu Arruti,
Asier Odriozola, Gorka Alvarez,
Jexux Artetxe, Maider Galardi,
Mikel Yarza, Nerea Segura eta
Aizpea Amas.

Informatikoa

Asier Aztiria.

Administratia

Nerea Garziarena.

PUBLIZITATEA

Ttakun Kultur Elkarte
Geltoki kalea 4
Tel.: 943 37 14 48 (106)
publizitatea@ttakun.eus

EGOITZA NAGUSIA

Ttakun Kultur Elkarte
Geltoki kalea 4
Tel.: 943 37 14 48 (104)
WhatsApp: 688 68 35 10
txintxarri@txintxarri.eus

Inprimategia

Zeroa Multimedia, S.A.

Lege Gordailua: SS-513/94

ISSN: 1134-0053

Tirada: 8.000 ale

BABESLEA



LASARTE-ORIA
UDALA

LAGUNTZAILEAK



HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Saiburuordetza



Gipuzkoako Foru Aldundia

AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKENA ARRATSALDEA BAINO LEHEN.

OSTIRALA 9

LASARTE-ORIA Inauteriak

Ikastetxeetan Inauteriak ospatzeko ekitaldi koloretsuak antolatu dituzte: 15:15ean, Landaberri ikastolako zaharrenek ikuskizuna eskainiko dute, Landaberri-Zubietako gimnasioan. 15:30ean, Landaberri ikastolako bikiek Euskal Inauteriak ikuskizuna eskainiko dute, Landaberri-Garaiakoetxeako patioan. 15:40ean, Sasoeta-Zumaburu ikastetxeko ikasleen ikuskizuna, Sasoeta eraikineko patioan. Eguraldi txarra eginez gero, gurasoek ezingo dituzte emanaldiak ikusi. Ikastetxeak, 15:15etik aurrera

LASARTE-ORIA Inahaldunak

Kuadrillategiko gazteek arratsalde ederaz gozatuko dute. Mozorro eta

ikuskizun lehiaketa, dantzaldia eta mokadu bat dastatzeko aukera ere dute. Villa Mirentxu, 18:00etik aurrera

LARUNBATA 10

LASARTE-ORIA Inauteriak

Lasarte-Oriako kaleak kolorez beteko dira Inauterietako konpartsei esker. Aurten *Labideak* da gaia. Egitaraua: 12:00etan, konpartsak bilduko dira Okendo plazan. 12:30etan, konpartsen aurkezpena. 13:30ean, mozorro lehiaketa. 14:00etan, karrozen lehiaketa. 14:30ean, herri bazkaria. 16:00etan, bingoa. 17:00etan, karrozen desfilea. 20:00etan, txokolate jana. 23:00etan, Disko Jaia. Lasarte-Oria, egun osoa

ASTELEHENA 12

LASARTE-ORIA Inahaldunak

Amarau Klubeko haur eta haien familiak primeran gozatuko dute *Inahaldunak* ekintzan. Mozorro lehiaketa, photocalla, *Plaza Irrintzika* ikuskizuna eta sorpresa gozo bat izango dute. Villa Mirentxu, 17:00etik aurrera

LASARTE-ORIA Itsaspeko zinema

Danok Kide elkarteak Real Sociedad itsaspeko sailaren laguntzaz Nazioarteko Itsaspeko VII. zinema zikloa antolatu du. Manuel Lekuona, 19:00etan

ASTEAZKENA 14

LASARTE-ORIA Opera emanaldia

Opera ikuskizuna ikusteko aukera izango da. Giuseppe Verdiaren *Rigoletto*-

ZINEMA

LASARTE-ORIA

MANUEL LEKUONA

The disaster artist (JPGA)
Ostirala: 22:00.

USURBIL

URBIL

Cincuenta sombras liberadas

Ostirala: 16:00, 18:15, 20:30, 22:45, 00:00, 01:00.
Larunbata: 16:00, 18:15, 19:20, 20:30, 21:40, 22:45, 00:00, 01:00.
Igandea: 16:00, 18:15, 19:20, 20:30, 21:40, 22:45.

Cavernicola

Ostirala: 18:10.
Larunbata: 15:55, 18:10.
Igandea: 15:55, 18:10.

C'est la vie!

Ostirala: 21:40, 00:00.
Larunbata: 21:40, 00:00.
Igandea: 21:40.

El corredor del laberinto: La cura mortal

Ostirala: 16:45, 19:30, 22:15.
Larunbata: 16:45, 19:30, 22:15.
Igandea: 16:45, 19:30, 22:15.

La abeja Maya: Los juegos de la miel

Ostirala: 16:10, 18:10.

Larunbata: 16:10, 18:10.
Igandea: 16:10, 18:10.

El cuaderno de Sara

Ostirala: 15:45, 17:55, 20:20, 22:20, 00:45.
Larunbata: 15:45, 17:55, 20:20, 22:20, 00:45.
Igandea: 15:45, 17:55, 20:20, 22:20.

El Gran Showman

Ostirala: 20:00.
Larunbata: 20:00.
Igandea: 20:00.

Handia

Ostirala: 21:40.

Los archivos del pentagono

Ostirala: 22:10, 00:30.

Larunbata: 22:10, 00:30.
Igandea: 22:10.

Tres anuncios en las afueras

Ostirala: 20:15.
Larunbata: 20:15, 22:40.
Igandea: 20:15, 22:40.

Perfectos desconocidos

Ostirala: 15:45, 18:00, 20:10, 22:45, 00:55.
Larunbata: 20:10, 22:45, 00:55.
Igandea: 20:10, 22:45.

El hilo invisible

Ostirala: 19:05.
Larunbata: 16:30, 19:05.
Igandea: 16:30, 19:05.

ren emanaldi digitala egingo da. Jatorrizko bertsoan eskainiko da eta gaztelaniako azpituluak izango ditu. Hamar minutuko atsedendia izango da. Sarrera, aurrez 7,5 euro eta egunean, 9 euro. Manuel Lekuona, 19:00etan

OSTEGUNA 15

LASARTE-ORIA Hitzaldia

Emantzipazioa lantzeko *Emantzipatu, noiz? Nola?* hitzaldia eskainiko da. Gaztelekua, 19:00etan

LUIS CAR

autobusak



- Españtako eta nazioarteko garraio-zerbitzuak.
- Enpresentzako, ikastetxeentzako...zerbitzuak.
- 15 plazako microbusak.
- 55 plazako autocarrak.
- Elbarrientzat behar bezala prestatutako autokarrak.

Uzturre Plaza 1, Lasarte-Oria
Tel/Faxa: 943 36 63 16
Mugikorra: 629 461 897
luiscarbus62@hotmail.com

KOMIKIA



MERKE ALDIA

Gama altuko
2mó betaurreko progresibo
179€
aurretiko prezioa: 199€

www.multioplicasgipuzkoa.com f t e

Arrasate • Beasain • Bergara • Donostia
Eibar • Errenteria • Irun • Ordizia • Tolosa

Kontsultatu itzazu zure optikan kanpainaren ezaugarriak.
Ezingo da beste eskaintza batzuetan erabili.

Kale Nagusia, 15
Tel.: 943 37 74 55
LASARTE-ORIA

MULTIÓPTICAS
lehen zerbitzu optikoetan

RPS 233/13

aldaz
hertz klinikak · clínicas dentales

GORA IHAUTERIAK!